

## 4 JARDUERA

Oinarrizko gaitasunak, irakasgaiak eta bien arteko erlazioak izan ditugu azken saioetan aztergai. Oinarrizko gaitasunak irakasgaien ikas-irakaskuntza prozesuetako jarduera didaktikoak bideratzen dituzten metodologia-erreferentetzat hartu behar dira. Beraz, hori guztia kontuan harturik, zehaztu, irakasgaien egiten den lana gauzatzeko zein liratekeen metodologiari lotutako estrategiarik egokienak oinarrizko gaitasunak garatze aldera.

### ESTRATEGIAK: (Dekalogo laburra)

- 1.- **Giro egokia sortzea** (lan egiteko giro aproposa; ikaskuntza sustatzeko espektatiba positiboak; parte-hartze aktiboa, ikasgelaren antolamendua, baloreak lantzea...e.a.)
- 2.- **Ikaskuntza aktiboa bultzatzea** (parte-hartzea bultzatzen duten metodologiak erabiltzea, zalantzak, problemak, arazoak, galderak, iradokizunak, proposamenak... aurkeztea; talde-lana bultzatzea; ikaskuntza funtzionalak: zerbait egin zerbaiterako, zentzua duten ikaskuntzak sustatzea; egiten irakastea; buruz ikastea, helbururik gabe, saihestea...e.a.)
- 3.- **Ikaskuntzaren helburua lortzeko motibazioa bultzatzea** (galderekin hastea; aurretiazko ezagupenen inguruko jarduerak planteatzea; lana burutzeko negoziazio jarduerak proposatzea; ikasleei hitz ematea...e.a.)
- 4.- **Ikaskuntza autonomia bultzatzea** (talde-lana sustatzea; dedukzioari garrantzia ematea; transmisio hutsezko ikaskuntza baztertzea; auto-erregulazioa bultzatzea; auto-ebaluaziorako eta ko-ebaluaziorako baliabideak erabiltzea; irakasleen eta ikasleen eginkizunak aldatzea...e.a.)
- 5.- **IKTak era esanguratsuan integratzea** (IKTen esparruko baliabide didaktikoak erabiltzea :wq-ak, altxorraren bila gisako baliabideak...; zeregin autonomoetarako eta, ikasgaien arabera, bereiztutakoetarako erabiltzea; gelakideen arteko komunikaziorako (ikasleen artean, ikasle-irakasleen artean...).
- 6.- **Askotariko informazio iturriak erabiltzea era askotako euskarrietan** ( informazio hautaketaren prozesua gidatzea; testu liburua soilik, informazio iturri bakartzat ez erabiltzea...e.a)
- 7.- **Ikasitakoa ahoz zein idatziz komunikatzea** (idazlanak, txostenak, azalpenak, hitzaldiak, aurkezpenak... gauzatzea; ikastaldeko kideen artean elkarrizketa eta interakzioa bultzatzea ikaskuntzarako baliabide gisa..e.a)
- 8.- **Ebaluazio hezitzailea, formatiboa, sustatzea** (aurre-ebaluaziotik abiatzea ikasleen maila erreala zein den jakiteko; behaketa ebaluaziorako informazio baliabide gisa erabiltzea; prozesua, hala behar balitz, berregokitzea; auto-ebaluazio zein ko-ebaluazio ... estrategia, eta jarduera anitzak erabiltzea...e.a.)
- 9.- **Tokiaren eta denboraren antolaketa desberdinak faboratzea** (burutu beharreko lanaren arabera ikasgelako antolaketa aldatzea; eskola saioen iraupena malgutzea, beharizan kontuan harturik; ikasleei ikaskuntza esanguratsua lortzeko behar duten denborarik nahikoa ematea...e.a)
- 10.- **Ikasitakoaren funtzionaltasuna eskolatik kanpo bultzatzea** (metodologia globalak erabiltzea, aktiboak, ikasleen egunerokotasunari lotutakoak erabiltzea...)